




DOLUAK DOLU

Doinua: Beste bateko inularretan

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Maddalen Arzallus Antia

- 1** Bizitza hain da eskuzabala, hain ditu altxor **anitzak...**
Ematen ditu amets ederrak eta leku **sinesgaitzak**,
esperientziak eta pertsonak gure arimen **zurkaitzak...**
Bainan emanen dizun guzia kenduko dizu **bizitzak**. (bis)
- 2** Aldatzen dira gure harremanak, joaten dira **lagunak**
eta ez gara bihozgabeak edo **ahalguzidunak**;
dolu ttikiak bizi ditugu sakonak eta **ilunak**,
bakoitzak gure denborarekin gaindituko **ditugunak**. (bis)
- 3** Aldatzen dira bizilekuak, hondatzen dira **ametsak**,
eraikitako zimendu batzu jotzen ditu azken **beltzak**.
Aldaketa bat zaila da bainan garapen bide da, **behintzat...**
Heriotzaren hoztasun bera du aldaketarik **ezak**. (bis)
- 4** Oroitzapenen zurrumbiloan gure minari **lotzean**,
doluak ere goxotasuna badu bere **bihotzean**.
Bainan ez ahantz ematen duzun urrats ttiki **bakoitzean**,
bizitza beti aurrean dela eta zilo bat **atzean**. (bis)
- 5** Zilo horretan eror zaitezke bainan ez zaitela **kezka**,
zure baitarik ezin baduzu, hasi laguntza **galdezka**.
Doluak dolu eta minak min bizitza beti da **festa**,
sufirimendua maitasunaren miraila bat baizik **ez da**. (bis)

